

Mundua aldatzeko hiru aukera: gosaritan, bazkaritan eta afaritan

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



Landare

Izaera: Produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkarte.
Sorrera urtea: 1993.
Hasierako bazkide kopurua: 40 pertsona.
Gaurko bazkide kopurua: 2.400 pertsona.
Langile kopurua: 23 pertsona.
Biltegien kokalekua: Iruñeko Arrotxapea auzoa eta Atarrabia.



JOSU SANTESTEBAN

Kontsumo ereduaren aldaketa du Landarek helburu. Elikagaien egiten den espekulaziotik aldentu eta pertsona eta ekoizpenari ematen dio garrantzia.

LANDARE ELKARTERA iritsi eta topatu du David Garnatxo, elkartearen sartzekotan dabilen lagun batekin solasean. Tokiko produktuez eta kontsumo arduratsuez ari diren bitartean, Garnatxok azaldu dio sarrera modura 42 euro ordaindu beharko dituela, eta ondoren hama-bi hilabeteko kuota 36 eurokoa dela, urtean bi orduko auzolana egiteko konpromisoarekin batera.

Kontsumo ereduaren aldaketa da Landareren helburu nagusietakoa. Produktu ekologikoak eta ahal den neurrian bertakoak dauzka eraldaketarako tresnatzat. Ahal den neurrian diogu, produktua bertakoa izatea beti ez baita posible; baina inguruan ekoizten den elikagaiari ematen diote lehentasuna.

Dimentsio soziala hartzen duten ekoizleak –eragile zein norbanakoa– izaten dituzte kontuan eurekin harremanetan jartzeko garaian. Elikadura eraldaketa sozialerako gakoetako bat bezala ulertuta, zuzeneko hartu-emana izaten dute nekazari eta abeltzainekin, bitartekariak alde batera utzita. Ekoizleei erositako produktuaren kargu Landare egiten da eta saldu gabe geratutakoa ezin

diote itzuli. Horrez gain, salmenten etekinaren %80 nekazariarentzat da, dendan %20 gelditzen den bitartean –beste kasuetan nekazariari hamarretik bat iritsi ohi zaio, saltokiak eta bitartekariak direla medio–. Elikagaien egiten den espekulaziotik aldentu eta pertsonen eta ekoizpenari ematen die garrantzia talde honek, eta ekonomia jasangarriago eta justuago baterantz lan egiten dute.

Errotaberri peñako jatetxea

Arrotxapean eta Atarrabian Landare elkartearen biltegi bana dago, bertan bazkideek erosketak egin dituzten. Kideen arteko jakintza trukaketak ere antolatzen dituzte gai baten inguruan gehiago dakienak gutxiago dakitenentzat ikastaroak eskainiz. Eta orain urte batzuk herri jantokia prestatu zuten Iruñeko Errotaberri elkartearen. Ikusirik peñak astean zehar hutsik egoten direla, jatetxe modura egokitzea bururatu zitzaion. Gaur egun independenteki funtzionatzen duen jantokia da, Landareekin lotura eko-

nomikorik ez duena – baina elikagaiak bertatik hartzen dituzte—. Egunean berrogei bat bezero biltzen ditu eta bi laguni ematen dio lana.

Hiri eta nekazal munduaren lotura

Hiritan zaila izan ohi da nekazariarekin zuzeneko harremana edukitzea. Landareko kideak ere kontzientzia dira Iruñean ez dela erraza herritarrek zuzeneko tratua hori mantentzea. Hala, harremana bideratu ahal izateko elkarte gisa ikusten dute beren burua, mundu urbanoan bertako nekazaritzak tokia izan dezan; eta aldi berean hiritik ere bertako nekazaritza sustengatu dezagun praktika sozial justuagoarekin.

Antimilitarista eta ekologista “zoro” batzuek orain hogeita bi urte hasitako proiektuak bere ibilbidea darrai, eta hasieran 40 bazkide izatetik egun 2.400 izatera igaro dira. Bazkideen asanbladak dira erabakiguneak, nahiz eta azken urteetan parte-hartzea jaisten joan den eta adosgune hauek birpentsatzen eta birmoldatzen diharduten. ■